



**Espediente zk./Nº Expediente:** 2021IUBA0002

**Gaia/Asunto:** 2021/02/23ko ohiko Udalbatzarra bilkura telematikoa / Pleno ordinario telemático del 23/02/2021

**Udalbatzak 2021eko otsailaren 23an eginiko bilkura telematikoari dagokion akta.**

**Acta de la sesión telemática de Pleno de la Corporación celebrada el día 23 de febrero de 2021.**

2021eko otsailaren 23ko 18:30ak zirela, modu telematikoan (martxoaren 31ko 11/2020 EDLk 7/1985 Legeko 46. artikuluan sortutako 3. atal berriak xedatutakoaren baitan), lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira, guztiak espainiar lurraldean kokatuak:

Siendo las 18:30 horas del día 23 de febrero de 2021, en sesión telemática (de acuerdo con lo dispuesto en el nuevo apartado 3 del art. 46 de la Ley 7/1985 introducido por la Disposición Final 2ª del Real Decreto Ley 11/ 2020 de 31 de marzo), se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las y los siguientes Concejales y Concejales radicados en territorio español:

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

**Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)**

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristlña FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

**Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)**

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristlña FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

**EAJ-PNV**

- Maite PEÑA LÓPEZ

**EAJ-PNV**

- Maite PEÑA LÓPEZ



- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

**Elkarrekin Errenteria**

- Ion COLLAR RIOSECO
- Maite GARTZIA ONTIVEROS
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

Era berean, bertan dago Irune Soto Cotorro udal Kontuhartzailea.

-----

**1. Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 26an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion bideo-akta, egoki bada, onartzea.**

Oharrik gabe onartu da.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 2021eko 101 zk.tik 400 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**3. Berri eman: Udalaren eta bere entitate dependienteen 2020ko aurrekontuaren 4ngo hiruhilekoaren exekuzioa (likidazioa kitatzeke).**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4. Kontuhartzaitzako txostena.**

Ondokoak jakinarazi dira:

- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

**Elkarrekin Errenteria**

- Ion COLLAR RIOSECO
- Maite GARTZIA ONTIVEROS
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

Igualmente asiste La Interventora Municipal Irune Soto Cotorro.

-----

**1. Aprobación en su caso de la videoacta correspondiente a la sesión ordinaria del 26 de enero de 2021.**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados, nºs 101 al 400 (ambos incluidos, correspondientes a 2021) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. Dar cuenta: Ejecución Presupuesto 4er. Trimestre 2020 del Ayuntamiento y sus Organismos dependientes (Pendiente liquidación).**

El Pleno queda enterado.

**4. Informes de Intervención.**

Se da cuenta de los siguientes:



- 2020ko 4.hiruhileko dirulaguntzak

- Subvenciones 4º Trimestre 2020

- 2020 ekitaldiko ordainketa epearen informazioa: 4. hiruhilabetea.

- Plazo medio de pago factura durante el ejercicio 2020: Trimestre 4.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**5.Hainbat sindikatu eta gizarte-erakundeek aurkeztutako mozioa, Amazoneko banaketa-zentro bat ezartzeari buruzkoa.**

**5. Moción presentada por diferentes sindicatos y organizaciones sociales, sobre la implantación de un centro de distribución de Amazon.**

Kepa Olaizek mozioa aurkeztu du:

Kepa Olaiz presenta la siguiente moción:

Jeff Bezosek, munduko pertsonarik dirudunenak, Oarsoaldeak eta Gipuzkoak bere 160.000 milioi euroko eta egunez egun handitzen doan dirutza handiagotzen lagundu diezaiola erabaki du.

Jeff Bezos, la persona más adinerada del planeta, ha decidido que Oarsoaldea y Gipuzkoa contribuyan aún más a acrecentar su fortuna de 160.000 millones de euros, que aumenta día a día.

Amazonek, ziur aski, dagoeneko aztertu du eta badaki zenbat salmenta kendu ahal izango dizkion Gipuzkoako tokiko merkataritzari, baina ez ditu baloratu nahi bere instalazioak Oiartzunen ezartzeko erabakiak eragingo dituen kalteak. Kalte horietako batzuk azaltzen saiatuko gara, baina beldur gara bere kontzientziak – diru gehiago eta gehiago irabazteko irrikaz – ez ote duen horrelako argudioekiko immunitatea izango.

Amazon, con seguridad, ya ha estudiado y sabe, cuántas ventas podrá arrebatar al comercio local en Gipuzkoa, pero no quiere valorar los perjuicios que su decisión de implantar en Oiartzun sus instalaciones va a ocasionar. Vamos a tratar de explicar algunos de estos perjuicios, aunque tememos que su conciencia – ansiosa de ganar más y más dinero- sea inmune a este tipo de argumentos.

Bere ibilbide gloriatsuan, hemen egindako lehen urratsak argi uzten du zein den bere jokabidea. Lehenik eta behin, bere baliabide ekonomiko boteretsuekin, duela urte askotatik finkatuta dagoen eta eskualdean sortu diran jarduerak arriskuan jartzen ditu, eta orain etorkizunari begira ziurgabetasun osoz geratuko diren enpleguak.

En su recorrido triunfal, su primer paso aquí deja bien claro cómo se las gasta. De primeras, desalojar con los poderosos atractivos que suponen sus medios económicos, a una actividad asentada desde hace muchos años, y que tuvo origen en la comarca, con muchos empleos que se quedan con total incertidumbre sobre su futuro.

Hurrengo urratsen emaitzak ez dira zailak asmatzen, beste leku batzuetan gertatu dena eta hemen dagoeneko gertatzen ari zaiguna ikusi ezker, enpresa honen furgoneta ugariak gure ingurua inbaditurik dute, irribarre zabal baina aurpegirik

Los resultados de sus siguientes pasos no son difíciles de adivinar si se comprueba lo que ha ocurrido en otros lugares y lo que está pasando ya, con la multitud de furgonetas de esta empresa que han invadido ya nuestro territorio, con una amplia



gabekoarekin, bertako merkataritza ordezkaten ari dira.

Argitaratu berri diren datuak kezkarriak dira. Duela gutxi egindako azterlan baten arabera, Frantziako merkataritza digitalak 114.000 enplegu suntsitu ditu, 2009 eta 2018 urteen artean, txikizkako elikagaiez besteko merkataritzan eta hauek jarduera berrietan sortutako 32.000 enpleguak baino askoz gehiago dira. Eta 87.000 lanpostu gehiago gal daitezke 2028ra bitarte. Estatu Batuetan 2008tik 670.000 lanpostu galdu dira arrazoi beragatik, eta 500.000 gehiago aurreikusten dira galduko direla 2025era arte. Beste iturri batzuen arabera, Amazonek Frantzian sortzen duen enplegu bakoitzeko 2,2 enplegu deusezten direla kalkulatu da. Enpresa horrek, berak bakarrik, 7.567 milioi euro fakturatu ditu Espainiako Estatuan 2019an, aurreko urtean baino % 70 gehiago.

Ingurumen-kalteak ere oso nabarmenak dira: banakako bidalketa masiboak, gehiegizko enbalajea eta energetikoki efizientzia txikia duen garraioak besteak beste, Amazonek 2019an 51,1 milioi tona CO2 isurtzea 2019 eragin dute ( aurreko urtearekin alderatuta % 15eko hazkunde-erritmoaz). Banaketa-ibilgailuek karga erdian zirkulatu dute entrega-epaiek bete ahal izateko eta horrek karbono-aztarna nabarmena sortzen du. Hori murriztu daiteke ekologia-eta ingurumen-terminoetan lan eginez gero.

Ingeniaritza fiskalaren eta laneko amarruen bidez, behar baino zerga gutxiago ordaintzen ditu eta langileen lan-baldintzen prekarizazioa bultzatzen du. Tasa txikiagoak dituzten herrialdeetan zergak ordaintzearen ondorioz, tokiko saltokiei konpetentzia desleiala egiten die eta nabarmen murrizten ditu zerga-bilketa eta salmentak burutzen diren lekuko baliabide publikoak. Gainera, ekoizpenak kontsumoarekiko duen deslokalizazioa errazten du, lan-kostu txikiagoak eta lan-baldintza eskasagoak dituzten lekuak aprobetxatuz. Bere abantaila

sonrisa, pero sin cara, que están sustituyendo al cercano comercio local.

Los datos recientemente publicados son preocupantes. Un reciente estudio indica que el comercio digital en Francia ha destruido 114.000 empleos entre 2009 y 2018 en el comercio no alimentario al por menor, superando en mucho a los 32.000 empleos creados en las nuevas actividades. Y hasta 87.000 más podrían perderse hasta 2028. En Estados Unidos desde 2008 se han perdido 670.000 empleos desde 2008 por el mismo motivo y se prevén 500.000 más hasta 2025. Otras fuentes indican que por cada empleo que crea Amazon en Francia se estima que se destruyen hasta 2,2 empleos. Esta empresa, en solitario, ha facturado 7.567 millones de euros en el Estado Español en 2019, un 70% más que el año anterior.

Los daños ambientales que ocasiona son también muy destacables, con envíos individuales masivos, el embalaje excesivo y un transporte energéticamente poco eficiente, que junto con otros aspectos, han hecho que Amazon haya generado 51,1 millones de toneladas de CO2 en 2019 (con un ritmo de crecimiento del 15% respecto al año anterior). Los vehículos de reparto circulan a media carga para poder cumplir con los plazos de entrega, lo que genera una huella de carbono considerablemente alta que podría ser reducida si se trabajase pensando en términos ecológicos y medioambientales.

Por medio de la ingeniería fiscal y tretas laborales, paga menos impuestos de los que debería y potencia la precarización de las condiciones de trabajo de los empleados. El pago de impuestos en países con menores tasas hace que esté en una posición de competencia desleal frente a los comercios locales y reduce notablemente la recaudación y los recursos públicos donde realiza sus ventas. Además facilita la deslocalización de la producción respecto al consumo, aprovechando los lugares como menores costes laborales son menores y condiciones de



aprobetxatuz ekoizleak eta hornitzaileak presionatzen dituzte eta gure lan-merkatua prekarizatzen dute.

Efektu horiek guztiak Oarsoaldeara, Bidasoa Beherera eta Gipuzkoa osora estrapolatu daitezke. Amazon, Oiartzunen finkatu nahi duen banaketa-zentroarekin -arreta handiz aukeratutako leku estrategikoa- 42.223 m<sup>2</sup>-ko azalarekin eta irismen-erradio indartsu batekin, nabarmen indartuko da. Kamioien, furgoneten eta banaketa-ibilgailu pribatuen joan-etorrien ondorioz, trafikoa handitzeak eremu hori "liztor-zulo" bihurtuko du, egungo saturazioa areagotuz. Enbarazu edo kutsadura handiagoa eragiteaz gain, egungo edo etorkizuneko beste jarduera ekonomiko batzuei ere kalte egingo die. Lehia desleial horren aurrean, tokiko merkataritza izango da kaltetu nagusia eta hiriko merkataritzaren desertizazioa haren ondorioetako bat. Zailtasunak ere areagotzen dira edozein produkturen fabrikatzaileentzat, kostuak eta zergak direla eta, ezingo baitute lehiatu. Herritar guztiak jasango dute, jasangarritasun ezagatik ez ezik, beren erabakien autonomia galeragatik ere bai (Amazon hornitzaile bakarra izango baita denborarekin).

Jakina, Amazoni erosteko edo ez erosteko aukera eremu partikularri eta pertsona bakoitzaren sentibilizazio-mailari dagokio, eta fenomeno global horretan eragitea zaila da. Hala ere, udalek funtzio nabarmenak dituzte, eta horiek gara ditzakete. Horren erakusgarri dira tokiko merkataritzari laguntzeko eta haren prestakuntza eta modernizazioa bultzatzeko egiten ari diren ahaleginak, bai eta hurbileko produktuei buruz herritarrek sentibilizatzeko kanpainak ere. Koherentziaz jokatzuz, udal-eskumenean beren ekintza zabaldu behar dute, gizarte-interesaren, lurralde-plangintzaren, ingurumenaren eta jasangarritasunaren eta garapen ekonomikoaren

trabajo más precarias. Aprovechando su situación ventajosa, presionan a productores y proveedores y precarizan nuestro propio mercado laboral.

Estos efectos son perfectamente extrapolables a Oarsoaldea, Bajo Bidasoa y Gipuzkoa entera, y potenciados notablemente con el centro de distribución que Amazon quiere asentar en Oiartzun, con una superficie de 42.223 m<sup>2</sup> y un amplio radio de alcance, en un lugar cuidadosamente elegido. El aumento de tráfico, por el trasiego de camiones, furgonetas y vehículos privados de reparto, va a convertir esa zona en un "avispero", incrementando la congestión existente provocada por los múltiples establecimientos comerciales de gran superficie ubicados en las proximidades y las actividades logísticas. El problema, no sólo es mayor molestia o contaminación ocasionada, sino también perjuicio a otras actividades económicas actuales o futuras. El comercio local, ante tal competencia desleal, va a ser el principal afectado, y la desertización comercial urbana, una de sus consecuencias. Y las dificultades también se acrecientan para los fabricantes de cualquier producto, con unos costes e impuestos, que no les permiten competir. Y toda la población también lo va a percibir, además de por motivos de sostenibilidad, por la pérdida de autonomía de sus decisiones (Amazon va a ser con el tiempo en el único proveedor).

Evidentemente la opción de comprar o no a Amazon corresponde a la esfera particular y al grado de sensibilización de cada persona, es un fenómeno global difícil de incidir, aunque no obstante los Ayuntamientos tienen funciones destacadas que pueden desarrollar. Prueba de ello son los esfuerzos que se vienen realizando para apoyar el comercio local y favorecer su preparación y modernización, así como campañas para sensibilizar a la población sobre los productos de proximidad. Guardando coherencia con estas acciones, las competencias municipales deben ampliar su acción, en razón al interés social, a la planificación territorial, al medio ambiente y sostenibilidad y al desarrollo económico,



arabera. Zeregin horiek guztiak saihestezinak dira herri erakundearentzat.

**Ondorioz, Udal honek honako erabaki hauek hartzen ditu:**

1. Aurretik adierazi den bezela, tokiko-eremuan eragin ditzakeen kalteengatik, Amazonek eskatutako banaketa-zentroa udalerrri honetan ezartzea edo haren eragina jasan dezakeen gertuko beste udalerrri batzuetan, ez dela komenigarria irizten diola.

2. Konpromisoa hartzen duela Amazon edo antzeko jardueraren aurrean, zorrotz aztertuko duela proiektua, Udalerrriko planeamentua eta jarduera aplikagarri zaion legedi guztia barne, jarduera baimentzeak dakartzen elementu guztiak kontuan hartuz, beti ere udalaren eskumenen barruan.

3. Mozio honen helburuarekin bat egiten duelako, konpromisoa hartzen du tokiko ekonomian balio erantsi duen komertzio txikia babesten eta indartzen jarraitzeko.

Udalbatzak, aldeko 21 botorekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ/PNV, Elkarrekin Errenteria), aho batez, hau erabaki du:

#### AKORDIOA

**Onartzea** hainbat sindikatu eta gizarte-erakundeek aurkeztutako mozioa, Amazoneko banaketa-zentro bat ezartzeari buruzkoa.(erabaki honen azalpen zatian jasota dago).

**6. Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV) Udal taldeak aurkeztutako mozioa, Errenterian trena lurperatzeari buruzkoa.**

todas ellas tareas ineludibles para la institución local.

**En consecuencia, este Ayuntamiento toma las siguientes decisiones:**

1. Que, tal y como se ha señalado anteriormente, por las posibles afecciones al ámbito local, la implantación del centro de distribución solicitado por Amazon en este municipio o en otros municipios cercanos que puedan verse afectados por el mismo, considera que no es conveniente.

2. Que se compromete frente a Amazon o actividad similar a analizar rigurosamente el proyecto para la realización de la actividad, incluyendo el planeamiento y toda la legislación que le sea de aplicación en este municipio, teniendo en cuenta todos los elementos que conlleva la autorización de la actividad, siempre dentro de las competencias del Ayuntamiento.

3. Se compromete a seguir apoyando y reforzando el pequeño comercio que ha aportado valor añadido a la economía local y por su alineamiento con el objetivo de esta moción.

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV), EAJ-PNV, Elkarrekin Errenteria).

#### ACUERDA

**Aprobar** la moción presentada por diferentes sindicatos y organizaciones sociales, sobre la implantación de un centro de distribución de Amazon. que consta en la parte expositiva del presente acuerdo

**6. Moción presentada por el Grupo Municipal Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV) sobre el soterramiento del tren a su paso por**



### Errenteria.

Ondoko mozioa irakurri dute:

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialak, otsailaren 27ko 41/2001 Dekretu bidez onartu zenak, egungo Donostia-Hendaia trenbidea (Topoa) eta Bilbo-Donostia trenbidea eraldatzea aurreikusten du Donostialdean eta inguruko beste udalerrri batzuetan; izan ere, mugikortasuna hasiera batean aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa denez gero, komeni da hasiera batean proposatutako soluzioak baino asmo handiagoko beste soluzio batzuk ezartzea.

Diseinu horrek aldatu egiten du trenbide bidezko garraioaren ikuspegia, eta metro gisako zerbitzua ezartzen du Zarautz eta Hendaia artean. Besteak beste, Donostiako hiri-eremuan egungo trazadura handitzen du eta, gure kasuan, Errenteriako biztanleei zuzendutako zerbitzua handitu eta hobetzen du; izatez, Galtzarabordako eta Errenteriako geltokien artean lurpeko saihebidetaren beharra hartzen du aintzat, premia hori agerikoa baita egungo trenbideak sortzen duen hesi-efektuari eta inpaktu handiari erreparatuta.

Aurreikuspen horiek garatze aldera, 2011n "Donostialdeko Metroaren Errenteriako lurpeko tarteari buruzko informazio-azterlan" idatzi zen. Informazio-azterlan horren xedea zen Galtzarabordako eta Errenteriako geltokien artean trenbidea bikoiztea eta lurperatzea. Izatez, tarte horretan trenbidea bide bakarrekoa da eta aire zabalean antolatuta dago, Pasai Antxo zeharkatu eta tunel batean sartu ostean, Galtzarabordako geltokian azaleratzen baita. Geltoki horretatik aurrera, trenbideak ekialderantz egiten du eta zuzenez iristen da Errenteriako geltokiraino, oso hesi-efektua handia sortuz tarte osoan. Geltokiaren ondoan kotxetegiak daude, Arasoko (Irun) instalazio berriek ordeztuko dituztenak. Geltokiaren ondoren, trenbidea tunel labur batean sartu eta Agustinetako muinoa zeharkatzen du, Fanderia eta Oiartzun

Leída la siguiente moción:

El Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobado por Decreto 41/2001, de 27 de febrero, contempla la transformación de las líneas del ferrocarril existente San Sebastián-Hendaia (Topo) y Bilbao-San Sebastián en el área de Donostialdea y otros municipios próximos, debido al incremento de movilidad que se ha producido ha sido muy superior al inicialmente previsto, lo que parece aconsejar la adopción de soluciones más ambiciosas que las inicialmente propuestas.

Así, este diseño, modifica la concepción del transporte ferroviario estableciendo un servicio tipo metro entre Zarautz y Hendaia, ampliando, entre otras actuaciones, su actual trazado en el área urbana de Donostia-San Sebastián y en este caso, la de ampliar y mejorar la cobertura poblacional de Errentería, así como la necesidad de una variante soterrada entre las estaciones de Galtzaraborda y Errentería que se hace patente por el fuerte impacto urbanístico que genera el efecto barrera de la actual línea.

En desarrollo de esas previsiones, en 2011 se redactó el documento «Estudio Informativo del Metro de Donostialdea. Tramo soterramiento de Errentería.» El objeto del Estudio Informativo era la duplicación y soterramiento de las vías entre Galtzaraborda y Errenteria. En lo que se refiere a la situación actual de dicho tramo, la línea ferroviaria, de vía única, aflora en Errenteria en la estación de Galtzaraborda, tras discurrir en túnel desde el paso por Pasai Antxo. Discurre hacia el este con trazado rectilíneo hasta la estación de Errenteria, provocando, en todo el tramo, un efecto barrera de considerables dimensiones. Junto a la estación se ubican las cocheras, que serían sustituidas por las nuevas instalaciones de Araso, en Irun. Tras la estación, atraviesa la loma de Agustinas mediante un corto túnel, para acabar enlazando con el tramo desdoblado entre Fanderia y



arteko tarte bikoiztuarekin bat egin arte.

Informazio-azterlan horren bidez, lortu nahi zen Galtzarabordako eta Errenteriako geltokien artean trenbide bikoitza diseinatzea eta bi geltokiak sistemaren baldintza berri horietara egokitzea. Abiapuntuko oinarritzko baldintza gisa, jarduketak bateragarria izan behar zuen Altza-Galtzaraborda tarte aldez aurretik egikaritzearekin. Izan ere, jarduketa hori hasi berria da, eta, Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuak jakinarazi duenez, 2021ean aterako da lizitazioa.

Hori dela eta, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak Udal Taldearen iritziz, une egokia da Errenteriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak duela 10 urte onartutako proiektu horri berrekiteko eta egungo egoerara egokitzeko, eta, elkarlanean, trenbidea Errenteriako tartean lurpera dadin lortzeko, herriko zentroa duen topoaren orbaina ezabatuz, mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetuz, espazio berriak sortuz, hiriko zentroaren mugikortasuna hobetzen duen Hegoaldea bideari amaiera bultzatuz, auzoen komunikazioa eta sarbideak hobetuz, tren eta ibilgailuak eragin sonoroak ezabatuz, eta abar. Proiektu honek garrantzi handia dauka herriaren garatze eta bizi kalitatea handitzeko.

Horrenbestez, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak Udal Taldeak honako puntu hauek dituen mozio hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaida eta onar dadin:

1. Errenteriako Udaltzak aldeko iritzia eman dio Eusko Jaurlaritzak “Donostialdeko Metroaren Errenteriako lurpeko tarteari buruzko informazio-azterlanaren” bidez onartutako trenbidea udalerrian lurperatzeko proiektuari.

Oiartzun.

Mediante el mencionado estudio informativo, el objetivo a alcanzar era diseñar una doble vía entre las estaciones de Galtzaraborda y Errenteria, y adecuar ambas estaciones a las nuevas condiciones del sistema. Como condición básica de partida, se consideraba que la actuación debía ser compatible con la ejecución previa del tramo Altza-Galtzaraborda, que se acaba de retomar y que como ha comunicado Iñaki Arriola, Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco, en breve se sacará la licitación en 2021.

Por dicho motivo, el Grupo Municipal Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak, considera que es el momento oportuno para que el Ayuntamiento de Errenteria y el Gobierno Vasco retomen dicho proyecto, aprobado hace 10 años, adecuándolo a la situación actual, y de esa forma, poder trabajar conjuntamente para hacer realidad dicho soterramiento en Errenteria, eliminando la cicatriz que supone el paso del topo por el centro del municipio, mejorando la movilidad y accesibilidad, generando nuevos espacios, impulsando la terminación del vial Sur que conseguiría mejorar ostensiblemente la movilidad del centro de la villa, mejorando la comunicación y acceso a los barrios, eliminando el impacto sonoro de tren y vehículos, etc. Este proyecto resulta de vital importancia para el futuro desarrollo de la ciudad y mejora ostensiblemente la calidad de vida de los vecinos.

Por ello, el Grupo Municipal Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak del Ayuntamiento de Errenteria, presenta esta moción para su debate y aprobación en pleno con los siguientes puntos:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria se posiciona favorablemente al proyecto de soterramiento del tren, a su paso por el municipio, aprobado por el Gobierno Vasco mediante el “Estudio Informativo del Metro de Donostialdea. Tramo soterramiento de Errenteria”.





2. Errenteriako Udaltzarak eraginpean dauden administrazio publikoen arteko lankidetzaren alde egiten du, trenbidea Errenteriako tartean lurperatzea ahalbidetuko duen akordio egokia lor dadin.

3. Errenteriako Udaltzarak udal-gobernari eskatzen dio Errenteriako Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren inguruan egiten ari diren aurretiazko lanetan kontuan har dezala "Donostialdeko Metroaren Errenteriako lurpeko tarteari buruzko informazio-azterlana".

4. Errenteriako Udaltzarak erabaki du Eusko Jaurlaritzari jakinaraztea Udaltzarak hartutako erabaki hau.

Jarraian, EH Bildu Orereta/Errenteria eta Elkarrekin Errenteria udal taldeek sinatutako mozio alternatiboa, Errenterian trena lurpeatzeari buruzkoa aurkerten dute.

Ondoko mozioa irakurri dute:

"Donostialdeko metroaren azterlan informatiboa. Errenteriako lurperatzea" dokumentua 10 urteren buruan oraindik ere zoko batean gordeta jarraitzen duen zirriborroa da.

Egungo trazatuak Errenterian arriskuak eta kalteak eragiten ditu, eta denborarekin egoerak okerrera egin du.

2011z geroztik, Errenteriako Udalak Eusko Jaurlaritzaren proposamenak hobetzeko alegazioak egin ditu lurralde-antolaketako eta sektoreko dokumentuen inguruan.

Osoko bilkurak 2015eko azaroan onartutako mozioan eskatzen zion Eusko Jaurlaritzari topoa lurperatzeko beharrezkoak ziren bitartekoak jar zitzala, hori delako arazoak konpontzeko aukerarik onena eta bakarra.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta a la colaboración interinstitucional, entre las administraciones públicas implicadas, para poder alcanzar un acuerdo satisfactorio que permita llevar adelante el soterramiento del tren a su paso por Errenteria.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al gobierno municipal a tener en cuenta el "Estudio Informativo del Metro de Donostialdea. Tramo soterramiento de Errenteria" en los trabajos previos que se están realizando para la aprobación del nuevo Plan General de Ordenación Urbana de Errenteria.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria acuerda notificar al Gobierno Vasco la adopción del presente acuerdo plenario.

Seguidamente se presenta la moción alternativa suscrita por los Grupos Municipales EH Bildu Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria en relación con el soterramiento del tren en Errenteria.

Leída la siguiente moción:

El "Estudio Informativo del metro Donostialdea. Soterramiento de Errenteria" sigue siendo un borrador que lleva 10 años guardado en un cajón.

Los riesgos y perjuicios que genera el trazado actual a su paso por Errenteria, los cuales con el paso del tiempo no han hecho más que agravarse.

Las diferentes alegaciones a los instrumentos de ordenación territorial y sectorial que el Ayuntamiento de Errenteria llevamos realizando desde el año 2011 con el objetivo de mejorar las propuestas planteadas desde el Gobierno Vasco.

La moción aprobada en pleno municipal en noviembre de 2015 por la que se solicitaba a Gobierno Vasco la disposición de todos los recursos necesarios para la ejecución del soterramiento como



Osoko bilkurak 2016ko urrian onartutako mozioan eskatzen zion Eusko Jaurlaritzari eta EuskalTrenbideSarea-ri lehenetsi zezala Donostialderako burdinbide-azpiegituren artean Altza-Pasaia Antxo- Galtzaraborda burdinbidearen eraikuntza eta sar zezala 2017ko aurrekontuetan obra-lizitazioaren oinarrien idazketa. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari Eusko Jaurlaritzarekin zati hau finantziatzeko hitzarmen-marko bat sina zezala eskatu zion.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritza Pasaian topoa lurperatzeko aukera berrikusten ari da, obrak burutuko dituen erabakitzeko.

Errenteriako zatiaren kontua gehiegi luzatzen ari da eta hori bidegabea da herriarentzat eta bertako biztanleentzat.

Hartara, Errenteriako Udalak hau erabaki du:

#### ERABAKIA

1.- Berrestea beharrezkoa eta premiazkoa dela gure herrian topoa lurperatzea.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea ez dezala bere erantzukizuna ekidin eta beste zenbait herritan bezala, Donostia eta Pasaia kasu, bere gain har ditzala proiektuaren kostua, izapidetzea eta exekuzioa.

Halaber, aipatutakoa egin dezala interes pribatu edo pribatiboen inguruko eragiketa urbanistikorik tartean sartu gabe.

3.- Proiektu hau funtsezkotzat jotzea Errenteriarren etorkizunerako eta txertatzea Plan Orokorra berrikusteko prozesuaren baitan.

la mejor y única solución a la solución de los problemas.

En la moción aprobada por el Pleno en octubre de 2016 se instaba al Gobierno Vasco y a EuskalSarea a que priorizase entre las infraestructuras viarias de la zona de Donostialdea la construcción del ferrocarril Altza-Pasaia Antxo- Galtzaraborda e incluyera en los presupuestos de 2017 la redacción de las bases de la licitación de las obras. Asimismo, se solicitó a la Diputación Foral de Gipuzkoa la firma de un convenio marco con el Gobierno Vasco para financiar este proyecto.

Actualmente se está revisando por parte del Gobierno Vasco el tramo para el soterramiento del topo en Pasaia, para una posible ejecución de las obras.

El tramo de Errenteria se está demorando en exceso, con el consiguiente agravio para el municipio de Errenteria y sus vecinos y vecinas.

El Ayuntamiento de Errenteria adopta el siguiente:

#### ACUERDO

1.- Reiterar la necesidad y la urgencia del soterramiento del topo en su término municipal.

2.- Instar al Gobierno Vasco a no eludir su responsabilidad y al igual que en actuaciones similares desarrolladas en otros municipios, como en Donostia y Pasaia, asuma la totalidad del coste del proyecto, su tramitación y ejecución.

De igual manera rechazar cualquier intento de vincular su desarrollo a ninguna operación urbanística que involucre intereses privados y privativos.

3.- Considerar que este proyecto es fundamental para el futuro de Errenteria y necesariamente tiene que trasladarse al proceso de revisión del Plan General.



4.- Eskatzea Eusko Jaurlaritzak beharrezkoak diren bideak zabal ditzan Erreterriako Udalaren nahiz eragindako herrikideen iritzia entzun eta kontuan hartzeko.

5.- Erabaki hau bidaltzea Eusko Jaurlaritzaren Garraio Azpiegituren Zuzendaritzari, mozio honen premisak kontuan hartu eta bere egin ditzan.

Lehenengo bozkatu da Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) taldeak sinatutako mozia, Erreterrian trena lurperatzeari buruzkoa.

Udalbatzak, aldeko 9 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV) eta aurkako 12 botoren gehiengoarekin (EH Bildu Orereta/Erreterria, Elkarrekin Erreterria).

#### ERABAKIDU

**Ez onartzea** Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) taldeak sinatutako mozia, (erabaki honen azalpen zatian jasota dago).

Jarraian, EH Bildu Orereta/Erreterria eta Elkarrekin Erreterria udal taldeek sinatutako mozio alternatiboa bozkatu da.

Udalbatzak, aldeko 15 botoren gehiengoarekin (EHBildu Orereta/Erreterria, Elkarrekin Erreterria eta EAJ/PNV) eta 6 abstentzioekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), hau erabaki du:

#### ERABAKIA

**Onartzea** EH Bildu Orereta/Erreterria eta Elkarrekin Erreterria taldeek sinatutako mozio alternatiboa, (erabaki honen azalpen zatian jasota dago).

4.- Solicitar que se establezcan los canales necesarios por parte del Gobierno Vasco para informar, escuchar y considerar las opiniones tanto del Ayuntamiento de Erreterria, como de los vecinos y vecinas de los barrios afectados.

5.- Remitir este acuerdo al Departamento de Infraestructuras y Transportes del Gobierno Vasco, con la intención de que consideren y hagan suyas las premisas de esta moción.

Pasa primeramente a votarse la moción presentada por el Grupo Municipal Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) sobre el soterramiento del tren a su paso por Erreterria.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 9 votos a favor (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV) y 12 votos en contra (EH Bildu Orereta/Erreterria, Elkarrekin Erreterria).

#### ACUERDA

**No aprobar** la moción presentada por Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV), que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

Seguidamente se pasa a votar la moción alternativa suscrita por los Grupos Municipales EH Bildu Orereta/Erreterria y Elkarrekin Erreterria.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 15 votos a favor (EH Bildu Orereta/Erreterria, Elkarrekin Erreterria y EAJ/PNV) y 6 abstenciones (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos).

#### ACUERDA

**Aprobar** la moción alternativa suscrita por los Grupos Municipales EH Bildu Orereta/Erreterria y Elkarrekin Erreterria. que consta en la parte expositiva del presente acuerdo



**7. Proposamena: Administrazio emakidako sisteman dauden hainbat garajetako garaje-plazen prezioak eguneratzea (2021). Udal garajeen hainbat kanon eta prezio onartzea (2021)**

Udalbatzarrak 2014ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran, "Errenteria Garatuz sozietate anonimoari udalak eman zizkion kudeatzeko ahalmenak berreskuratzea (Kontratazio eta Ondare azpisaila)" onetsi zuen.

Aipaturiko ahalmenen artean honako hau dago: emakidako erregimenean dauden garajeak.

Emakidako erregimenean dauden garaje plazen prezioak urtero eguneratu behar dira, KPIren arabera igotzen dira eta emakidaren urteak pasatu ahala gutxitzen direlarik.

Orain, prezioak eguneratu behar dira, hurrengo urterokoari dagozkionak (2021).

Era berean, jarraian adierazten diren kakon eta prezioak onartu behar dira (2021):

- 50 eta 75 urteko lagapeneko erregimeneko garajeen kudeaketa- eta mantenu-gastuen kanona.
- Udalaren garajeetan aparkalekuak eta trastelekuak aldi baterako erabiltzeko baimenaren kanona (jabari publikoko ondasunak).
- Aparkalekuak alokatzeko prezioa (ondare-ondasunak).
- Giltzak, txartelak eta mandoak eskuratzea.

Tomás Martín, Kontratazioa eta Ondarea azpisaileko Arduradunak, 2021ko otsailaren 9an txostena eman du

2021eko otsailaren 17an, Kontratazioa eta Ondarea azpisailearen Ordezkaririk proposatuta, Antolaketa

**7. Propuesta: Actualización de los precios de las plazas de garaje de los diversos garajes en régimen de concesión administrativa (2021). Aprobar diversos cánones y precios relativos a los garajes municipales (2021)**

El Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2014, aprobó "la asunción por parte del Ayuntamiento de las encomiendas de gestión realizadas por el Ayuntamiento a favor de la sociedad municipal Errenteria Garatuz SA (subárea de Contratación y Patrimonio)".

Entre dichas encomiendas de gestión esta la relativa a los garajes en régimen de concesión administrativa.

Anualmente hay que actualizar los precios de las plazas de garaje en régimen de concesión administrativa, que aumentan en función del IPC y disminuyen a medida que transcurren los años de concesión transcurridos.

Procede, en estos momentos, la actualización de precios correspondiente a la próxima anualidad (2021).

Así mismo, hay que aprobar los cánones y precios por los siguientes conceptos (2021):

- Canon por los gastos de gestión y mantenimiento de garajes municipales en régimen de concesión de uso a 50 y 75 años.
- Canon por la autorización de uso temporal de plazas de aparcamiento y trasteros en garajes municipales (bienes de dominio público).
- Precio de arrendamiento de plazas de aparcamiento (bienes patrimoniales)
- Adquisición de llaves, tarjetas de acceso y mandos.

El Responsable de la Subárea Contratación y Patrimonio, Tomás Martín, ha emitido informe con fecha 9 de febrero de 2021.

Visto que en fecha 17 de febrero de 2021, a propuesta del Delegado de la subárea de Contratación y



batzordeak aldeko irizpena eman dio erabaki honi.

Udalbatzak, aldeko 18 botoen gehiengoarekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos eta Elkarrekin Errenteria) eta 3 abstentziorekin (EAJ/PNV), hau erabaki du:

### AKORDIOA

1.- Administrazio-emakidako erregimenean dauden hainbat garaje-plaza prezioak EGUNERATZEA ondoren aipatzen diren koefizienteen arabera, 2020ko abenduaren 31ko datan; akordio honekin batera doaz prezioak, espedienteen jasotakoak.

- Alaberga-Lekuberri garajeak.

Eguneratze-koefizientea: 1,331793151

- Aldakoenea- Asapal garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,187034247

- San Marcos garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,350665

- Beraun-Pontika garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,313456986

- Esnabide garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,33456

- Beraun 17-27 garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,190054795

- Parke-Galtzaraborda garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,255186849

- Isidro Antsorena garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,190054795

- Agustinak garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,318775

- Kristobal Gamon garajeak

Eguneratze-koefizientea: 0,86041859

- Gabierrota garajeak

Eguneratze-koefizientea: 0,859170459

- Pablo Sorozabal garajeak

Eguneratze-koefizientea: 0,869337522

Patrimonio, la Comisión Informativa de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 18 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos y Elkarrekin Errenteria) y 3 abstenciones (EAJ/PNV).

### ACUERDA

1.- ACTUALIZAR los precios de las plazas de garaje de los diversos garajes en régimen de concesión administrativa mediante los coeficientes que a continuación se señalan, a fecha 31 de diciembre de 2020 y que constan en el expediente.

- Garajes Alaberga-Lekuberri.

Coficiente de actualización: 1,331793151

- Garajes Aldakoenea- Asapal

Coficiente de actualización: 1,187034247

- Garajes San Marcos

Coficiente de actualización: 1,350665

- Garajes Beraun-Pontika

Coficiente de actualización: 1,313456986

- Garajes Esnabide

Coficiente de actualización: 1,33456

- Garajes Beraun 17-27

Coficiente de actualización: 1,190054795

- Garajes Parke-Galtzaraborda

Coficiente de actualización: 1,255186849

- Garajes Isidro Ansorena

Coficiente de actualización: 1,190054795

- Garajes Las Agustinas

Coficiente de actualización: 1,318775

- Garajes Cristóbal de Gamón

Coficiente de actualización: 0,86041859

- Garajes Gabierrota

Coficiente de actualización: 0,859170459

- Garajes Pablo Sorozabal

Coficiente de actualización: 0,869337522



- Don Bosco garajeak

Eguneratze-koefizientea: 1,031025991

- Markola garajeak

Eguneratze-koefizientea: 0,995151175

- Alaberga garajeak

Eguneratze-koefizientea: 0,995151175

- Parke-Urdaburu garajeak

Eguneratze-koefizientea: 0,947927447

- Garajes Don Bosco

Coficiente de actualización: 1,031025991

- Garajes Markola

Coficiente de actualización: 0,995151175

- Garajes Alaberga

Coficiente de actualización: 0,995151175

- Garajes Parke-Urdaburu

Coficiente de actualización: 0,947927447

2.- Emakidadunei JAKINARAZTEA administrazio-emakidako erregimenean dauden hainbat garaje-plaza prezioen eguneratze hau, 2020ko abenduaren 31ko datakoa.

2.- COMUNICAR esta actualización de los precios de las plazas de garajes de los diversos garajes en régimen de concesión administrativa, a fecha 31 de diciembre de 2020, a los diferentes concesionarios.

3.- ONARTZEA jarraian adierazten diren kanon eta prezioak (2021 urterako):

3.- APROBAR para el año 2021 los cánones y precios que a continuación se señalan:

- 50 eta 75 urteko lagapeneko erregimeneko garajeen kudeaketa- eta mantenu-gastuen kanona (Ohiko eta ez-ohikoak). (I Eranskina)

- Canon por los gastos de gestión y mantenimiento de garajes municipales en régimen de concesión de uso a 50 y 75 años (ordinarios y extraordinarios). (Anexo I)

- Udalaren garajeetan aparkalekuak eta trastelekuak aldi baterako erabiltzeko baimenaren kanona (jabari publikoko ondasunak). (II Eranskina)

- Canon por la autorización de uso temporal de plazas de aparcamiento y trasteros en garajes municipales (bienes de dominio público). (Anexo II)

- Aparkalekuak alokatzeko prezioa (ondare-ondasunak). (III Eranskina)

- Precio de arrendamiento de plazas de aparcamiento (bienes patrimoniales) (Anexo III)

- Giltzak, txartelak eta mandoak eskuratzea. (IV Eranskina)

- Adquisición de llaves, tarjetas de acceso y mandos. (Anexo IV)

4.- Precio eta kanona horiek **2021ko Martxoaren 1etik** aurrera izango dituzte ondorioak.

4.- Los precios y cánones tendrán efectos a partir del día **1 de marzo de 2021**.

5.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ARGITARATZEA, guztiek jakin dezaten eta egoki diren ondorioak izan ditzan.

5.- DAR PUBLICIDAD al presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento y efectos.



**8. Galdera-eskariak.**

Ez da galderarik edo eskaerarik egin.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:49 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2021ko otsailaren 23a

**8. Ruegos y preguntas.**

No se produce ruego ni pregunta alguna.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 19:49 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 23 de febrero de 2021

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IUBA0002-AKTA/ACTA (Ayuntamiento de Errenteria)